

O P O R R A K

E T X E A N

IPUIN HAU MARRAZTERA
LAGUNDUKO NAUZU?

KOLOREZTATU!

BI ALDETATIK
INPRIMATU!



Egilea: Raquel Samitier
Itzulpena: Jone Etxeberria

2020ko martxoan
www.samitierilustracion.com
web -gunean deskargatu dezakezu.

OPORRAK ETXEAN

GURASOENTZAT OHARRA

Marrastu eta koloreztatzeko fitxekin egindako ipuin ilustratuta. 4-8 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Laburpena:

“Pipa Madrilén bizi den 6 urteko neskatxa da. Egun hauetan milioika haur bezala, behartua eta guztiok batera egiten ari den itxialdi bat pairatzen ari da etxean. Egoera honen aurrean, Piparen ikuspuntua baikorra eta alaia da. Familiarekin zein ekintza originalak egiten bikain sentitzen da.”

Egilearen argibidea:

Ekintza fitxa hauek ez dira zehazki hezitzaileak, entretenimendurako, marrazteko zein margotzeko erabilgarriak izan daitezke.

BERE ASMOA EZ DA COVID 19-RENGATIK SORTURIKO KRISI EGOERA LARRIAREN ISLADA EMATEA.

PIPA-ren istorioa Roberto Benignik egindako “La vida es bella” pelikulan oinarritzen da eta horregatik esaten zaio “oporrak” egun gogor hauei gure oporren esanahia bestelakoa izanda ere.



KAIXO, NI PIPA NAIZ ETA ZU? _____


SEI URTE BETE BERRI DITUT ETA MADRILEN BIZI NAIZ.
OPORRETARA JOATEA IZUGARRI GUSTUKO DUT, ZUK?
GU BATZUETAN HONDARTZARA GOAZ KANPING EGITERA,
BESTETAN HIRI BERRIAK EZAGUTZERA, EDOTA IRTEERA
EGITEN DUGU MENDIRA. BAINA AURTEN OPORRAK
LEHENAGO IRITSI DIRA...



...ETA OPORRAK IGAROTZERA
GELDITU GARA... **ETXEAN!**
ZER ZORTEA!

OPOR HAUEK OSO
BEREZIAK
IZANGO DIRA!






HAU NIRE ETXEA DA ETA BERTAN AMA, AITA,
NIRE NEBA ETA LAUROK BIZI GARA.






PEPA

PEPE


PIPA



PEPO



ZURE ETXEAN NORTZUK BIZI ZARETE?
ZURE FAMILIA AURKEZTUKO DIDAZU?
HEMEN MARRAZTU DEZAKEZU





ELBIS GARZIA




MARAKAK




REME



KARMELO



ENARA ETA DIEGO



HAUEK NIRE AUZOKIDEAK DIRA!
BERAIEK ERE OPORRAK EUREN
ETXEETAN IGAROTZEN ARI DIRA




NEGUTXO




SEGISMUNDU




KOKO




ABDUL ETA JASMINE



PAKITA




NOLA IZENA DUTE ZURE AUZOKIDEEK?
AURKEZTUKO DIZKIDAZU?




OPORRETAN IZUGARRI GUSTATZEN ZAIT **MARGOTZEA.**

GAUR NIK EGINDAKO MARRAZKI ETA DISEINUEKIN NIRE
LOGELAN ARTE-MUSEOA ZABALDU DUT.

BAITA HISTORIAZKO MUSEOA ETA NAZIOARTEKO KOTXEEN
ERAKUSKETA ERE. ORAIN IPUIN BAT ILUSTRATZEN ARI NAIZ.



ZER DA **MARRAZTEA** GEHIEN GUSTUKO DUZUNA?
HEMEN ERAKUTSI....




Gustatuko litzaizuke nire museoan
zintzilikatzea?

Bidali zure marrazkia
samitierilustracion@gmail.com-era

Bai

Ez






OPOR HAUETATIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIDANA DA
 ETENGABEAN **JOLASTEN** ARI GARELA:
 GAINERA, MUGIKORRAK AHOTSIK GABE DAUDENEZ, GURE
 IRRIAK OZENAGO ENTZUTEN DITUGU.



OHAR GARRANTZITSUA:
 MOMIA MOZORRO HAU KOMUNEKO PAPERAREKIN EZ EGITEA GOMENDATZEN DA.
 ZER IRUDITZEN ZAIZU APURTUTAKO OIHAL EDO BENDEKIN EGITEN BADUZU?



KUXIN, KARTOI ZEIN **BERRERABILTZEKO**
MATERIALEKIN JOLASTEN DUT.
 HORRELA NIRE JOLAS ZEIN
 MOZORROAK ASMATZEN DITUT.



ZEIN DA ZURE JOSTAILURIK
GOGOKOENA?

ERAKUTSIKO DIDAZU? MARRAZ IEZADAZU!



OPORRETAN EGUNERO **ARIKETA FISIKOA**

EGITEN DUT.

NIREKIN KIROLA EGITERA ANIMATUKO ZINATEKE?

ZURE BURUA MARRAZTU! AURRERA!



- Zure etxean oztopo itzulia egin dezakezu
- Balkoian klarionekin twister bat sortu
- Harrapaketatara edota zapira jolastu....

GAUR NIRE PANPINEI BAZKARIA PRESTATU DIET:
TXITXIRIO GORDINAK, DILISTAK, MAKARROIAK ETA
KARTOI ZEIN ALDIZKARI ZATIAK. BAZKARI BIKAINA ETA
OSO OSASUNTSUA!

Kartulina eta plastikozko
poltsa batekin sukaldari
txanoa sortu dut!



ĠATZAZKO PASTAREN ERREZETA

Ilarra, saltxitxak, txuleta, tomate, plater, mahai tresnak egiteko...

Irinezko 2 katilu
Ġatz katilu $\frac{1}{2}$
Ur katiluaren $\frac{3}{4}$

Ontzi handi batean irina, ura eta gatza nahastu modelatzeko prest egon arte, baina likatsu gelditu gabe. ur pixka batekin zatiak itsas daitezke. Lehortzen utzi eta nahi duzun modura margotu.

OPOR HAUETARAKO EKINTZEKIN EGINDAKO
EGITARAU BEREZI BAT DUGU

Hona hemen nirea

Zein da zurea?



	Jaiki, goşaldu, hortzak garbitu, jantzi eta ohea egin	
10 etan	ESKOLAKO LANAK EGIN (ikastea asko gustatzen zait)	
11 etan	HAMAIKETAKOA "picnic" moduan	
12 etan	ARIKETA FISIKOA ETA ESKULANAK	
14 etan	ELKARREKIN BAZKALTZEN DUGU	
15 etan	Teknologia: pelikula bat ikusiko dugu?	
17 etan	JOLASAK FAMILIAREKIN	
18 etan	ASKARIA "picnic" moduan	
18,30 etan	SOINKETA MUSIKAREKIN	
19 etan	BIDEODEIAK: aiton-amonekin, lagunekin... hitz egiten dugu	
20 etan	TXALOAK	

GOAZEN!
 20:00AK DIRELA

BALKOIRA ATERA ETA **TXALO** ZAPARRADA
EGITEKO ORDUA IRITSI DA. INDAR ASKOREKIN
GUZTION ARTEAN ANIMATZEKO, **BEREZIKI**
LANERA JOAN BEHAR ETA ETXEAN OPORRETAN
EGOTEKO AUKERARIK EZ DUTENENTZAT.

MILA ESKER!

